



zpalak

Dantza tradizionalaren nazioarteko jaialdia
2014ko maiatzak 24 eta 25 IRUNEA -EIBAR



ezpalak, dantza tradizionalaren
nazioarteko
jaialdia

Argitaratzaileak:

Duguna dantza taldea

Kezka dantza taldea (Eibarko Klub Deportiboa)

Diseinua eta inprimategia:

Gertu Komunikazio Bide, S.L., Oñati.

CC-BY-SA Ezpalak 2014

<http://dantzan.com/kidea/ezpalak>



Ttunttuneroak dantzari begira, 2014ko ezpalak

ezpalak, dantza tradizionalaren
nazioarteko
jaialdia

Txistua eta danbolina, txirula eta ttun-ttuna: euskal folkloreak eskaintzen dizkigun sinboloetako bat dira txistulariak, danbolinteroak. Azken bostehun urteotan behinik behin, aldi berean bi tresna jotzen dituzten musikari hauek dantzarako ezinbesteko lagun izan ditugu, bai Euskal Herrian eta bai Europako toki askotan ere. *Tamborileros* deritze Gaztelako zenbait herritan, *flabiolaires* Katalunian, *taborers* Ingalaterran, *tambourinaires* Proventzan, e.a.

Dantzariok ditugun musika premiak osoki betetzen ditu danbolinteroak, esku bakarrarekin jotzen den txirularekin doinua erakutsi eta beste eskuarekin danborrarekin erritmoa markatzeko gai baita. Dantzaren jira-biran aritu izan diren danbolinteroak dantza-maisuak ziren aldi berean, eta irauten dute horrelako gutxi batzuek gaur egun ere. Hain zuzen, dantzarako, dantzariei begira jotzen duten danbolinteroak gonbidatu ditugu aurtengo Ezpalak jaialdira. Gloucestershiren, Bizkaian, Zamoran, Lapurdin eta Tarragonan, molde bereko soinulariek dantzariekin nola lan egiten duten ikusiko dugu 2014ko jaialdian.

Duguna dantza taldea – Kezka dantza taldea





Ezpalak, dantza tradizionalaren
nazioarteko
jaialdia

Ezpalak, dantza tradizionalaren nazioarteko jaialdia

2014ko maiatzaren 24an eta 25ean Iruñean eta Eibarren

Iruñea. Maiatzak 24, larunbata

12.00etan Kalejira alde zaharreko karriketan barna.

12.30etan Ezpalak dantza tradizionalaren nazioarteko jaialdia Burgoen Plazan. Dantzarako jotzen duten ttunttuneroak eta bere dantzak:

- Duguna dantza taldea – Iruñea (Nafarroa).....6
- Cambrils-eko ball de bastons – Tarragona (Katalunia).....8
- Ataitze dantza taldea – Itsasu (Lapurdi).....10
- Muelas del Pan-go dantzariak – Zamora (Gaztela-Leon).....14
- Feet Togheter Jump! – Gloucestershire (Inglaterra)16
- San Lorenzo dantza taldea – Berriz (Bizkaia)18



Eibar. Maiatzak 25, igandea (49. Euskal Jaia)

12.00etan Euskal Jaiko kalejira Urkizutik Untzagara.

12.30etan Ezpalak dantza tradizionalaren nazioarteko jaialdia Untzaga Plazan.
Dantzarako jotzen duten danbolinteroak eta bere dantzak:

- Kezka dantza taldea (Eibar, Gipuzkoa).....20
- Cambrils-eko ball de bastons – Tarragona (Katalunia).....8
- Ataitze dantza taldea – Itsasu (Lapurdi).....10
- Muelas del Pan-go dantzariak – Zamora (Gaztela-Leon).....14
- Feet Togheter Jump! – Gloucestershire (Ingalaterra)16
- San Lorenzo dantza taldea – Berriz (Bizkaia)18

17.00etan Erromeria Aiko taldearekin.





zpalak, dantza tradizionalaren
nazioarteko
jaialdia

Duguna dantza taldea

Iruñea (Nafarroa)

Duguna dantza taldea 1949. urtean sortu zen, eta orduz geroztik Iruñeko ospakizun nagusietan parte hartzen du. Izan ere, horixe baitu bere xede nagusia, Iruñeko dantza-ekitaldiak sendotu eta bultzatzea.

Ttuntuneroei eskainitako jaialdi honetan Duguna dantza taldeko dantzari eta txistulariek bi dantza eskainiko dizkigute: alde batetik, nagusiek irailaren bukaera aldera San Fermin Aldapakoaren ez-pata-dantza egingen dute, txistuaz eta atabalaz lagunduta. Bestetik, txikien taldeko umeek “buhameak” pieza eta Zuberoako makil-dantza dantzatuko dute, xirularen eta atabalaren doinuaz.

Iñaki Sagardoi, Eiande Aranburu eta Julen Leuza gazteak ariko dira txistulari, txirulari eta atabalarari.



zpalak, dantza tradizionalaren
nazioarteko
jaialdia





zpalak, dantza tradizionalaren
nazioarteko
jaialdia

Ball de bastons de Cambrils

Cambrils (Tarragona)

Cambrils herrian ezagutzen dugun *ball de bastons* edo makila-dantzen aurreneko albistea 1907ko Kontzepzio jaietakoa da. Hain zuzen, Cambrilsen bizi ziren Montblanc aldeko bastoners (makil-dantzari) batzuek dantzatu omen zuten. Makilak gurdien gurpilen erradioetatik ateratzen ziren, eta Cambrils-ekoa da horiek erabiltzen dituen azken taldeetako bat.



Àngel Vallverdú Rom 19 urterekin murgildu zen musika tradizionalan, aurrena gralla joaz, eta ondoren flabiol eta tamborinoa. Dantzaldi, kontzertu, grabazio eta abar luze baten hartu izan du parte, eta hainbat sari irabazi. Dantza tradizionalaren esparruan, ball de bastons bat baino gehiago sortu eta beste ugarirekin jo izan du, eta dibulgatzaile gisa, hainbat eta hainbat lan egin ditu Katalunian zehar.



Ataitze dantza taldea

Itsasu (Lapurdi)

Ataitze Itsasuko (Lapurdi) dantzarien multzoa da. Lapurdi barnealde eta Baxenabarre hurbileko dantzak ditu oroz gainetik begiratzen eta lantzen, bai eta Euskal Herriko bertze zonbeit ere. Itsasuko dantzarien lehen betebeharrak herrian berean dira, urteko sasoinen haritik:

ihauteriako kaxkarotak eta zanpantzarra, Besta Berriak, Gerezi besta, Jondonibane bezpera, herriko bestak (Murtutsak), eta noizean behin tobera mustra-kabalkadak. Galdeginez geroz, taldea kanpoan ere ari da gogotik, Iparraldean, Hegoaldean eta urrunago ere. 2014an Itsasuko dantzariak Italian agertu dira, Rocca Grimaldako ihauterietan.



Xabier Itzaina (1971) itsasuarra da eta herriko dantzarien laguntzen dabila tamborin (xirula- ttunttuna) gisa. Ofizioz unibertsitateko ikerlea da. Dantza erakasle bezala arizana da luzaz Itsasun, herriko haur eta gazteekin. Soinulari eta dantzari lagunekin batera, Lapurdi-Baxenabarren galtzear zagoen xirula-ttunttunaren ohiduraren zaintzen bermatzen da, bere heinean.



zpalak, dantza tradizionalaren
nazioarteko
jaialdia



Argazkia: Kutxa Fototeka





Joxe Urain *Txanbolin*, Debako
danbolintera (1839-1909).
Argazkia: Egun Zaharretako Deba.



Paloteo de Muelas del Pan

Muelas del Pan (Zamora)



Muelas del Pan herria Gaztela-Leongo Zamora probintzian kokatzen da. Bertako makiladantzaren arrastoak XVI. mendera arte garamatza, Gorpuzti eguneko prozesioetan Santísimoari laguntzeko dantzatu izan baita. Gero, XX. mendearen amaieran ahaztua izateko arriskuan egon zen, baina gaur egun hain osasuntsu dirudi, non kultur-interesa duten beste 54 jai tradizionalen artean kokatu nahi duen Zamora eta Bragantza inguruko neguko maskaradei buruzko ikerketa batek.



Mario Martínez Roncero tamborileroa Zamorako Alberto Jambrina edo Isabel Bernardo, musika tradizionaleko irakasleen ikasle izandakoa da. Zamorako lau paloteado garrantzitsuenetako bateko -Cañizalga- musikari ofiziala da, eta Muelas del Pan-go honetan ere sarritan jotzen du.





zpalak, dantza tradizionalaren
nazioarteko
jaialdia

Feet Together Jump

Gloucestershire (Ingalaterra)

Feet Together Jump, Costwolds eskualdeko Morris jigs dantzetan aditua den bikotea du. Dantza tradizionalak plazaratu eta estilo bereko dantza berriak sortzen dituzte. Beraien jantziak 500 urteko Morris dantzen historian oinarrituta daude. Gurean Alex Merry dantzatuko da, orain gutxi, esaterako, Royal Albert Hall entzutetsuan aritu ondoren.





Stephen Rowley-k txirula eta danborra jotzen ditu nerabegarotik, 1970. hamarkadatik, hain zuzen ere. Costwold eskualdeko estiloan aritzen den esperientzia handiko Morris dantzaria da, gainera. Azken 15 urteetan, Morrisen eta Moriskoen arteko lotura ikertzen aritu da, eta lan horretan aitzindaria dugu. Era berean, Taborers Society-ko lehendakaria da.





zpalak, dantza tradizionalaren
nazioarteko
jaialdia

San Lorentzo dantza taldea

Berriz (Bizkaia)



San Lorentzo dantza taldea 1952. urtean sortu zen Alejandro Aldekoa txistulari eta dantza-maisuairen laguntza ezinbestekoaz. Gaurko dantzariak laugarren edo bosgarren belaunaldikoak dira. Erregelak Durangaldeko soka-dantza baten izena da. Bere aurrendaria eta azkenkia ditu, eta hauek euren erakustaldia egin ohi dute sokan doazela. Herriaren batasunaren sinbolotzat jo izan da soka-dantza. Bestela, dantzari-dantza zikloaren piezaren bat ere eskainiko digute berriztarrek.



German eta Jon Aldekoa
Arriaga dira gaur egun San Lorentzo
dantza taldearen txistulari nagusiak.
Alejandro Aldekoaren semeak dira,
aitarekin ikasitakoak eta, hariari
segika, bere lekua hartutakoak San
Lorentzo taldean. Germanek,
gainera, Alejandrok izan zuen
Berrizko txistulari ofizial postua ere
betetzen du.



zpalak, dantza tradizionalaren
nazioarteko
jaialdia

Kezka dantza taldea

Eibar (Gipuzkoa)



Eibarko Klub Deportiboaren barruan sortu zen Kezka dantza taldea 1958. urtean. Hasiera-hasieratik txistulari eta dantzariak osatu dute Kezka, eta taldearen 56 urteko ibilbidean eskutik aritu izan dira. Ezpata-dantzaren inguruan antolatutako dantza sorta bat eskainiko dute Kezka dantza taldeko eta dantza eskolako dantzariak eta txistulariak. Euskal tradizioan ohikoak diren ezpata-dantzen figura desberdinak ikusteko

aukera izango da. Batez ere, espata luzeak edo makilak elkarri eman eta sokak, kateak, borobilak, arkuak, arrosak, zintzarriak eta parrillak osatuz dantzatzen direnak, baina baita bestelakoak ere.



Andoni Altzibar,
Iñaki Barua,
Amaia Baglieto,
Jose Migel
Laskurain eta
Roberto
Altzerreka arituko
dira txistulari eta
atabalari lanetan.



Enbor bereko ezpalak

Iruñeko Duguna eta Eibarko Klub Deportiboko Kezka dantza taldeek antolatzen duten Ezpalak jaialdia gai baten inguruan egituratzen da urtero. Ezpalak jaialdiaren helburua Europako dantza tradizionalaren esparruan gorde den fondo komuna erakustea da. Nahi gabe ere, erraz antzemango ditugu tradizioen arteko hainbat traza eta usain. Bestela, talde bakoitzak berezko ze kolore dakarren aztertzea ere ariketa polita suerta dakizuke.

Zortzi urte hauetan Ingalaterra, Flandria, Frantzia, Portugal, Norvegia, Okzitania, Katalunia, Valentzia, Gaztela, Galizia, Kanariak, Eskozia, Italia, Asturias, Aragoi, Kantabria eta Euskal Herriko dantzak ikusteko aukera eskaini du Ezpalak jaialdiak. Baina euren arteko aldeak baino gehiago, kultura koreografiko horien guztien arteko antzekotasunak nabarmentzeko ahalegina da Ezpalak. Izan ere, folkloreak herrien arteko loturak aspaldikoak direla erakusten digu, eta dantza tradizionalak Europako eskualdeen arteko trukea frogatzeko era hobezina dira.





Ezpalak, dantza tradizionalaren nazioarteko jaialdia, urtez urte:

- 2006: Ezpata-dantzak
- 2007: Makila-dantzak
- 2008: Arku-dantzak
- 2009: Karaktere-dantzak
- 2010: Dantza-jauziak
- 2011: Bikoteko dantza soltea
- 2012: Zinta-dantzak
- 2013: Sorgin-dantzak
- 2014: Danbolinteroak





Dantza tradizionalaren nazioarteko jaialdia
2014ko maiatzak 24 eta 25 IRUNEA -EIBAR

ANTOLATZAILEAK:



EIBARKO KLUB DEPORTIBO
KEZA DANITZA TALDEA



dantzan.com

LAGUNTZAILEAK:



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala



EIBARKO UDALA
Kultura eta Euskara Batzordea
Comisión de Cultura y Euskara



KULTURA SALA
Gaithera eta Egitze
Euzko Jaurlaritzaren

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Juventud
y Acción Comunitaria



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa